



Usurbilgo Udala

2025/01/28

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2025EKO URTARRILAREN 28AN  
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Iratxe Begiristain Otegi, Ainhoa Arrozpide Landa eta Xabat Beloki Segurola.

**Idazkaria:** Xabin Juaristi Arrieta.

Ez da bertaratu: Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

**1.- 2025EKO URTARRILAREN 14KO AKTA ONARTZEA.**

Batzarkideek 2025eko urtarrilaren 14ko akta aho batz onartu dute.

**2.- ETXEALDIA AUZOKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO KALE NAGUSIA-ETXEALDIA ARTEAN HIRI-IGOGAILUA GAUZATZEKO OBRA KONTRATUAREN ESLEIPENA (2024LIRO0002).**

**Ikusirik**

Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko urriaren 29an egindako ohiko bilkuran, Etxealdia auzoko irisgarritasuna hobetzeko Kale Nagusia-Etxealdia artean hiri-igogailua gauzatzeko obraren kontratazio espedienteari onespina eman zion, prozedura ireki aruntaren bidez, iragarkia udal Kontratazio Plataforman argitaratuz.

Eskaintzak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 26an amaitu zen eta lizitatzailerik bakarra aurkeztu zen: Construcciones Urdinberri S.L.

2024ko azaroaren 28an kontratazio mahaian bilduta, A artxibo elektronikoa ireki zen eta honen edukia ontzat eman eta B artxiboan jasotako memoria udal aparejadoreak aztertzea erabaki zen.

2024ko abenduaren 12an kontratazio mahaian bilduta, udal aparejadoreak memoriaren azterketaren berri eman eta balorazioa onartu zen 15 puntu emanez eskaintzari. Jarraian C artxibo elektronikoa ireki zen honako eskaintzarekin:

- Prezioa: 773.722,61 euro.
- Berme epea: lau urtekoa.

80 puntu eskuratu ditu Construcciones Urdinberri S.L. enpresaren proposamenak, modu



Usurbilgo Udala

2025/01/28

automatikoan zenbatetsi daitezkeen irizpideen artean 70 puntu prezioaren atalean eta 10 puntu berme epea luzatzeari dagokion atalean.

Orotara 95 puntu eskuratu ditu Construcciones Urdinberri S.L. enpresaren eskaintzak.

Usurbilgo Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 20an egindako ezohiko eta premiazko bilkuran Construcciones Urdinberri S.L. enpresak aurkeztutako eskaintza eskaintza onena izendatu zuen eta errekerimendua egin zion dokumentazioa eta 31.972,01 euroko behin betiko bermea aurkeztu zitzaizkion.

Emandako epean enpresak eskatutako agiriak eta behin betiko bermea (2025-JBAL-1) kodearekin kontabilizatua) aurkeztu ditu.

Aurkeztutako agiriak ontzat eman ondoren, 2025eko urtarrilaren 15eko datarekin kontratazio teknikariak esleipenaren aldeko txostena egin du.

### **Kontuan harturik**

- Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea.
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 legea partzialki garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

Aurreko guztia kontuan izanda, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**LEHENA:** Construcciones Urdinberri S.L. enpresari esleitzea Etxealdia auzoko irisgarritasuna hobetzeko Kale Nagusia-Etxealdia artean hiri-igogailua gauzatzeko obra kontratua, honako baldintzetan:

- Prezioa: 773.722,61 euro, BEZ barne.
- Bermealdia: lau urte.

**BIGARRENA:** Aipatutako obra gauzatzeko 773.722,61 euroko gastua xedatzea (A 1235-2024).

**HIRUGARRENA:** Esleipendunari dei egitea kontratua 15 egun balioduneko epean sinatzeko, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eta kontratua sinatu ondoren formalizazio hau udaleko Kontratatailearen Profilean argitaratzea.

**LAUGARRENA:** Erabaki hau jakinaraztea Construcciones Urdinberri S.L. enpresari.

**BOSGARRENA:** Erabaki hau udal aparejadoreari eta kontu-hartzaitza sailari komunikatzea.



Usurbilgo Udala

2025/01/28

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**